

## PROGRAMAZIOA B2.1

### HELBURUAK, GAITASUNAK, EDUKIAK ETA EBALUAZIOA

#### MAILAREN DESKIPZIOA

#### Erabiltzaile independentea

Gai da hizkuntza erabiltzen den lekuetan **era autonomoan** bizi izateko eta beste erabiltzaile batzuekin harreman pertsonal eta sozialak izateko; baita hezkuntza-inguru tertziario aurrean ikasteko ere; edo lanbide-inguru batean ohiko gaietara buruzko lankidetzara eta negoziatzara eskatzen duten egoeretan jarduteko. **Eraginkortasunez komunikatzeko** bezainbesteko jarioz, naturaltasunez eta zuzentasunez erabiltzen du hizkuntza, **ohiko egoeretan zein espezifikoko eta konplexuagoetan**. Eduki abstraktua zein zehatza duten gai orokorren, edo norbere intereseko edo espezializazioaren gaineko ahozko eta idatzizko **testu luze samarrak**, orotariko **egitura konplexuak** eta **lexiko-sorta zabaleko ohiko esapideak** dituztenak ulertu, bakarrik zein beste batzuekin sortu eta prozesatu, hizkuntzaren aldaera estandarrean eta **erregistroa komunikazio-asmora eta egoerara egokituz**.

#### HELBURUAK

#### HELBURU OROKORRAK

B2 mailan, ikasleak haxe **ikasten du**:

- Hizkuntza erabiltzen duten hiztunekin esfortzu handiegirik gabe komunikatzen hizkuntza behar besteko jarioz eta naturaltasunez erabilia.
- Ahoz zein idatziz ulertzen, adierazten eta elkarreragiten, era askotako baliabide linguistikoak erabiliz.
- **Gai izaten hizkuntza erabiltzen den lekuetan independentziaz bizitzeko, ikasteko edo lanean behar besteko eraginkortasunez jokatzeko.**
- **Baliabide linguistiko konplexuak eta ohiko esapide idiomatikoak** barneratzen eta erabiltzen, esanahiaren ñabardurak antzeman eta adierazi ahal izateko.
- Xede-hizkuntzaren edo bestelako hizkuntzen hiztunen arteko **bitartekotza egiten**, ohiko egoeretan edo **egoera espezifikokoetan** eta **konplexuagoetan**, esparru pertsonalean, **publikoan, hezkuntzan** eta **lanbidean**.

#### HELBURU ZEHATZAK ETA JARDUERAK

#### Entzunaren ulermena

##### Helburua

Egitura konplexuko ahozko testuen puntu nagusiak, xehetasun garrantzitsuenak, iritziak eta jarrera esplizitu eta implizituak ulertuko ditu, gai orokorren edo norberaren interes edo espezializazio-arloetakoak izanik, abiadura arruntean artikulatuta, hizkuntzaren aldaera estandarrean eta edozein kanalen bitartez, baita entzuteko baldintzak onak ez direnean ere.

## Jarduerak

- Adierazpenak, mezuak eta iragarkiak ulertzea (adibidez, korporazioen edo erakundeen adierazpenak edo mezuak), abiadura arruntean eta hizkuntzaren aldaera estandarrean.
- Hizkuntza konplexuko argumentu-lerro nagusia, ideia nagusiak, xehetasun garrantzitsuak eta inplikazio orokorrak ulertzea, gai aski ezagunak, orokorrak edo norberaren espezialitatekoak edo interesekoak badira, eta ondo egituratuta, eta ulermena gidatzen duten markatzaile esplizituak badauzkate.
- Elkarrizketa informal, aski luzeetan ideia nagusiak eta inplikazioak ulertzea.
- Elkarrizketa informaletan ironiaren edo umorearen ñabardurak antzematea, markatzaile esplizituen bidez adierazita badaude, eta argumentua argi garatzen bada, oso idiomatikoa ez den hizkuntzaren aldaera estandar batean.
- Elkarrizketa formaletan solaskideek nabarmentzen dituzten ideiak zehaztasun osoz ulertzea, baita jarrerak eta argumentu nagusiak ere.
- Telebistako eta irratiko programak ulertzea argi eta abiadura arruntean artikulatuta badaude.
- Horretaz gain, hitzunen gogo-aldartea eta doinua/tonua identifikatzea.

## Ahozko ekoizpena eta elkarreragina

### Helburua

Kanala kontuan hartu gabe, ahozko testu argiak, nahiko zehatzak, luze samarrak, ondo antolatuak eta solaskideari eta komunikazio-asmoari egokituak sortzea, bakarrik zein elkarreraginean, era askotako gaiak bai interes orokorrekoak bai norberaren interes- edo espezializazio-arloetakoak, erregistroen eta estiloen aldaera estandarrean, eta ahoskera eta entonazio argi eta naturalarekin, eta eraginkortasunez komunikatzeko behar besteko espontaneotasun-, jario- eta zuzentasun-mailarekin, nahiz eta noizbehinka erroreren bat egin, baina jabetzen da eta zuzendu dezake.

## Jarduerak

### Jendaurreko aurkezpenak

- **Aurkezpen** publiko argiak eta zehatzak egin, luze xamarra eta alde aurretik prestatuak, ikuspuntuak azalduz, aldeko zein aurkako arrazoiak emanez, aukera ezberdinen artean abantailak eta desabantailak adieraziz, argumentuak argitasunez garatuz eta alde gehigarriekin eta adibideekin zabalduz edo defendatuz.
- Galderei behar besteko argitasunez, jarioz eta bapatekotasunez erantzun entzuleari tentsiorik ez eragiteko moduan.

### Transakzioak

- Ohiko eta ez hain ohiko transakzioetan eta gestioetan segurtasunez moldatu.
- Informazio eta azalpen argi eta zehatzak eman eta eskatu norbere espektatibak eta jarrera argi utziz.
- Argumentazioa behar bezala garatu arazoak konpontzeko.

### Elkarrizketak

- Elkarrizketa formaletan eta informaletan, solaskide batekin edo gehiagorekin, eraginkortasunez parte hartu, aurrez aurre, telefonoz edo bestelako baliabideez.
- Aktiboki eta modu egokian parte hartu elkarrizketa, bilera, ika-mika eta eztabaidetan, ohikoak direnean zein espezifikagoetan ere (norberaren espezializazio-arloa, esparru publikoa, akademikoa edo lanbidekoa)

- Gertaerak, esperientziak, sentimenduak eta erreakzioak, ametsak, itxaropenak eta nahiak zehaztasunez deskribatu.
- Solaskideei erantzuteko iruzkin egokiak egin.
- Iritziak, sinesmenak eta proiektuak zehaztasunez adierazi eta defendatu konbentzitzeko moduan azalduta eta justifikatuta.
- Azalpenak, argudioak eta iruzkin egokiak eman.
- Hipotesiak eman eta erantzun.
- Solaskideei irribarrerik edo eragozpenik ez eragin hori nahi ez dala, ezta solaskideen artean tentsiorik eragin ere.

## Irakurriaren ulermena

### Helburua

**Testu konplexuetako** zentzu orokorra, funtsezko informazioa, puntu nagusiak, xehetasun garrantzitsuenak eta egilearen iritziak eta jarrera **esplizitu** eta **inplizituak nahiko erraz ulertzea**. **Gaiak era askotakoak** dira bai interes orokorrekoak bai norberaren interes- edo espezializazio-arloetakoak. Hizkuntzaren **aldaera estandarren batean** idatzita egongo dira, ohiko erabilerako **adierazpen idiomatikoak** dituztenak eta atal zailak berrirakurtzeko **aukera badago**.

### Jarduerak

- Jarraibideak, argibideak edo bestelako informazio tekniko luze eta konplexuak ulertzea, baita baldintzei eta ohartarazpenei buruzko zehaztasunak barnean hartuta ere.
- Kontsulta-testuetan, gai orokorreki buruzko informazio zehatza ulertzea.
- Testu ofizialen eta erakundeen edo korporazioen testuen informazio espezifikoak ulertzea.
- Oharren, mezuen, korrespondentzia pertsonalaren, foroen eta blogen edukia, asmoa eta inplikazioak ulertzea.
- Norberaren espezializazio-arloari eta gai abstraktu zein zehatzei buruzko korrespondentzia formala irakurtzea eta funtsezko esanahia antzematea, baita xehetasun eta inplikazio garrantzitsuenak ulertzea ere.
- Kazetaritzako testuak ulertzea, gaurkotasuneko edo espezializazioko artikulak eta erreportajeak barne. Testu horietan egilearen ikuspuntuak agertzen dira eta autoreak iritziak ematen ditu implizituki zein esplizituki.
- Literaturako eta fikzioko testu garaikideak ulertzea, prosan, estilo bakunean eta hizkuntza argian idatzita.

## Idatzizko ekoizpena eta elkarreragina

### Helburua

Euskarria kontuan hartu gabe, **testu idatzi luze samarrak, ondo antolatuak eta nahiko zehatzak** sortzea, bakarrik edo elkarreraginean, **askotariko** gaien gainean bai interes orokorrekoak, bai norberaren interes- edo espezializazio-arloetakoak, **garrantzizkotzat jotzen diren alderdiak nabarmenduz**, hizkuntza idatziak berezko dauzkan hizkuntza-baliabide ugari modu egokian erabilia, eta komunikazio-egoeraren erregistrora eta estilora **eraginkortasunez egokituta**.

### Jarduerak

- Informazio **konplexua** duten galdera-sorta eta inprimaki **zehatzak** betetzea.
- CV **zehatza** idaztea, motibazio-gutunarekin batera, eta garrantzitsutzat jotzen den informazioa zehatzu eta zabaltzea, eta hartzaileari egokitzea.

- Informazioa jakinarazi edo eskatzeko diren oharrak, iragarkiak eta mezuak idaztea, iritziak eta **azalpenak** barnean direla, **testu-genero eta -motaren konbentzioak** eta adeitasun-arauak errespetatuta.
- Hitzaldietan, aurkezpenetan edo solasaldi ondo egituratuetan garrantzitsutzat jotzen diren alderdiei buruzko oharrak behar beste xehetasunez hartzea.
- Ondo egituratutako elkarrizketetan (adibidez, lanekoetan), solasaldi formaletan, bileretan edo eztabaidetan, ideia nagusien, alderdi nabarmenen eta zehaztasun garrantzitsuenen oharrak hartzea.
- Korrespondentzia pertsonala idaztea eta foro eta blogetan **segurtasunez komunikatzea**. Albisteak eta ikuspuntuak **eraginkortasunez** adierazten dira, **nolabaiteko emozioa igortzen da**, gertaeren eta esperientzien **garrantzi** pertsonala **nabarmentzen da**, albisteak eta **ikuspegi ezberdinak komentatzen** dira.
- Instituzio publiko edo pribatuei eta enpresei korrespondentzia formala idaztea, informazio **zehatza** eman eta eskatzeko eta zenbait ekintzaren arrazoiak behar bezain zehatz **azaldu eta justifikatzeko**, testu horiei dagokien konbentzio formalak eta adeitasun-konbentzioak errespetatuta.
- **Luzera ertaineko eta egitura argiko** txostenak idaztea. Bertan gai bat **behar besteko zehaztasunez** adierazten da eta **argumentua garatzen da**, ikuspegi baten **alde eta kontrako arrazoiak ematen dira**, aukera ezberdinen **abantailak** eta **desabantailak azalduz** eta **justifikatutako ondorioak** eta iradokizunak adieraziz.

## Bitartekotza

### Helburua

Xede-hizkuntzaren edo bestelako hizkuntzen hitzunen arteko bitartekotza egitea, ohiko egoeretan edo **egoera espezifikagoetan** eta **konplexuagoetan**, esparru pertsonalean, **publikoan**, **hezkuntzan** eta **lanbidean**; **ahozko edo idatzizko testu konplexuetan** alde **abstraktuez eta konkretuez** aritzea, gai orokorrak edo **norberaren espezializazio-arlokoak** izanik.

### Jarduerak

- Besteei ahoz zein idatziz helarazi ahozko testu edo testu idatzi konplexuen zentzu orokorra, ideia nagusiak eta ñabardura garrantzitsuak eta **iritziak eta jarrerak bai implizitoak bai esplizitoak** (adib. aurkezpenak, dokumentalak, elkarrizketak, eztabaidak, artikulua) baldin eta testuok ondo antolatuta badaude eta pasarte zailenak berriro irakurtzeko aukera badago edo berriro entzun badaiteke.
- Informazio eta argudio nagusiak eta alderdi garrantzitsuenak sintetizatuz besteei ahoz helarazi **zenbait iturritako** testu idatzietatik jasota.
- Informazio-trukean interpretatu. Informazio trukeak izan daitezke lagunartean ezagunen artean familia edo lankideen artean, ohiko egoeretan eta **konplexuagoetan ere** (bileretan, zeremonietan, ekitaldi edo bisita kulturaletan) baldin eta zehaztasunen bat konfirmatzeko aukera badago.
- Truke formaletan, interpretazioak egin (adibidez, ondo egituratutako lan-bilera batean), baldin eta alde zehatzetik prestatzea badago eta, behar denean, baieztatze eta argitzeko eskatzea badago.
- Ohiko egoeretan, **espezifikagoetan eta konplexuagoetan** bitartekotza egin informazioa, iritziak eta arrazoi nagusiak helarazteko, **abantailak eta desabantailak kontrastatuz**, **iritziak argi** eta adeitasunez **adieraziz** eta izan litezkeen soluziobideak eskatuz edo eskainiz.
- Ondo egituratutako aurkezpen, elkarrizketa edo debate batean besteentzako ohar idatziak hartu, **behar besteko zehaztasunez eta antolaketaz** eta **puntu eta alde garrantzitsuenak jasota**.
- Idatziz helarazi ahozko edo idatzizko testu konplexuen esanahi orokorra, puntu nagusiak, zehaztasun garrantzitsuak eta **iritzi eta jarrera implizitoak zein esplizitoak** baldin eta **testuak ondo antolatuta** badaude eta **atal zailenak berriro irakurtzea edo entzutea badago**.
- Idatziz laburtu **solaskide bi edo gehiagoren arteko** solasaldietan entzuten diren puntu nagusiak, zehaztasun garrantzitsuak, iritziak eta argumentuak, argi egituratuak eta **abiadura normalean** ekoiztiak.
- Idatziz laburtu, iritziak, argumentuak eta analisisa dituzten berriak, elkarrizketa zatiak edo dokumentalak.
- Idatziz laburtu filmetako eta antzerki obretako gertakarien trama eta sekuentzia.

- Idatziz sintetizatu eta helarazi hainbat iturritako testu idatzietatik (adibidez, komunikabideetatik, edo hezkuntzako edo laneko txostenetatik edo bestelako dokumentuetatik) jasotako informazio, argudio nagusi eta alderdi garrantzitsuenak.

## GAITASUNAK ETA EDUKIAK

### 1. GAITASUN ETA EDUKI FUNTZIONALAK

Komunikazio-esparru eta testuinguruari erreparatuta, ahozko hizkuntzako eta hizkuntza idatziko **era askotako** adierazleen bidez, komunikazio funtzioak ulertu, ezagutu eta bete:

#### Hizkuntzaren gizarte erabilerak

- Agurtu, kasu bakoitzean egoki den formaltasun mailarekin.
- Ongietorria egin eta ongiatorriei erantzun.
- Norbera aurkeztu, norbait aurkeztu eta beste batek norbera aurkeztean erreakzionatu, egoeraren arabera, modu formalean edo informalean.
- Ezagun edo ezezagun bati hitz egin, eta solaskide baten arreta eskatu, tratamendu egokia erabiliz harremanaren arabera.
- Pertsona edo gauzengatik interesa agertu, eta informazioa jasotzean, honako hauek azalarazten dituzten esamoldeak erabili: interesa, harridura, poza, pena, tristura, asebetetzea, asegabetasuna, esperantza, atsekabea, beldurra, onarpena eta gaitzespena.
- Ohiko beste gizarte-erabilera batzuk: oparitu, gonbidatu, opa, ongiatorria egin, gertakari jaki- netan sentimenduak adierazi eta gauza onak opa, eta egoera horietan erreakzionatu.
- Goraintziak edo agurrak ematea eta horrelako adierazpenei erantzun.
- Jatorduetako ohiko adierazpen-trukeak. Topa egin, proposatu.
- Zoriondu, gauza onak opa eta horrelako adierazpenei erantzun.

#### Komunikazioaren kontrola

- Laguntza eskatu: ulertzen ez dena aditzera eman; zerbait errepikatzeko, argitzeko edo letraka esateko eskatu; polikiago hitz egiteko eskatu; eta ezagutu edo ulertzen ez diren hitz zein esamoldeen esanahia galdetu.
- Esandakoa ulertzen dela adierazi, argibideak eskatu, parafraseatu, nork bere burua zuzendu eta ulertu izana egiaztatu.
- Ulertu ez duen kide bati zerbait azaldu edo itzuli.
- Zuzen ulertu duen jakiteko, baieztapena eskatu.
- Etenaldi, keinu, luzapen edo esamoldeekin isiluneak bete, falta den osagaia aurkitu bitartean.
- Parafraseatu, komunikazio-arazoak agertzen direnean.
- Ahaztutako hitzak edo hitz ezezagunak hitz orokorrekin ordezkatu.

#### Informazio orokorra

- Pertsoneri eta norberari buruzko informazioa eman eta eskatu.
- Informazio zehatza eskatu eta eman, ordutegi, data, toki, kopuru, gauza, arau, tramite, ohitura eta

prozesuei buruz.

- Gauzak, pertsonak eta lekuak identifikatu, eta identifikazio okerrak zuzendu.
- Galderen bidez identifikatu.
- Pertsonak, gauzak, lekuak, jarduerak eta prozesuak xehetasunez deskribatu.
- Zerbait baieztatu, baieztatzeko eskatu edo ezeztatu.
- Norberak edo beste batzuek emandako informazioa zuzendu, modu enfatikoan edo adeitasunez.
- Informazioa argitu, horri buruz jardun edo zalantzan jarri.
- Berritasunak jakinarazi.
- Zerbaiten existentzia edo ezagutza adierazi edo horri buruz galdetu.
- Galderei erantzun, informazioa gehituz, baieztatuz, gezurtatuz, zalantzan jarritz, eta ezjakintasuna zein ahaztu izana adieraziz.
- Jabetza adierazi.
- Pertsonak, gauzak, lekuak, jarduerak eta prozesuak xehetasunez deskribatu.
- Zerbait non, nola eta noiz gertatu den azaldu.
- Gertakariak kontatu, eta oraina, lehena eta etorkizuna lotu.
- Datuak zenbakitu eta sailkatu.
- Informazioa errepikatu eta transmititu.

### **Iritziak eta balioespenak**

- Galdetu, zerbait ezagutzen dela edo ez dela ezagutzen aditzera eman eta zerbait gogoratu edo ahaztu izana adierazi.
- Norbaiti zerbait gogorarazi.
- Gertakari bat baieztatu edo ezeztatu, segurtasun edo enfasi handiago edo txikiagoarekin.
- Gauzak, pertsonak, lekuak, egoerak eta ekintzak konparatu.
- Zalantza, sinesgogortasuna eta ziurtasun-maila adierazi.
- Ulermen-falta edo nahasmena adierazi.
- Aurrean, probabilitate-maila handiago edo txikiagoarekin.
- Hipotesiak eta susmoak azaldu.
- Gertakari bat egia dela baieztatu edo gezurtatu.
- Nork bere burua zuzendu.
- Aukera, gaitasuna, betebeharra, beharra eta horien kontrakoak adierazi, eta horiei buruz galdetu.
- Norbaiti zerbait egotzi.
- Zerbaitekin erabat edo zati batean ados dagoela edo ez dagoela adierazi, besteei ados dauden edo ez galdetu, eta ados egotera bultzatu.
- Onarpena, onespina, asebetetzea eta horien kontrakoak adierazi, baieztapen eta ezeztapenekin.
- Gertakariak eta iritziak adierazi, justifikatu, defendatu eta konparatu.
- Kausak, helburuak eta ondorioak adierazi.
- Iraganeko, orainaldiko eta etorkizuneko baldintzak adierazi.
- Gertakariak, pertsonak, ideiak, zerbitzuak eta jazoerak balioetsi.

### Sentsazioak eta sentimenduak

- Honako hauek azalarazi: nahia, planak, asmoak, beharrak, interesak, atseginak, gustuak, jakin-mina, zaletasunak, promesak eta bete gabeko asmoak.
- Norberarentzako edo besteentzako nahiak adierazi.
- Adierazpenak eta galderak egin, osasunari, sintomei, sentsazio fisikoei, eta osasun alorreko hobera edo okerrera egiteei buruz.
- Aldartea, emozioa edo sentimenduak adierazi, hots, honako hauek aditzera eman: harridura, poza, zoriontasuna, alaitasuna, pena, atsekabea, tristura, oinazea, sufrimendua, haserrea, nahigabea, ardura, beldurra, larritasuna, nerbioak, esperantza, lasaitua, ilusioa, desilusioa, dezeptzioa, frustrazioa, asebetetzea, asegabetasuna, umore ona/txarra, axolagabetasuna, nekea, jostaketa, gogaitasuna eta lotsa.
- Besteekiko sentimenduak adierazi, hots, honako hauek aditzera eman: esker ona, estimua, adiskidetasuna, maitasuna, konfiantza/deskonfiantza, begikotasuna, gorrotoa, gaitzespena, mirespena, errukia eta dolumina.
- Sentimenduak elkarbanatu.
- Behar bezala erreakzionatu besteen sentimenduen aurrean. Adorea eman eta besteak lasaitu.
- Besteen barkamena onartu eta barkamena eskatu.
- Damu izan.
- Leporatu, aurpegiratu, defendatu edo errugabetu.
- Goraipatu eta protesta egin. Erreklamazioak egin edo kexatu.

### Eskaerak, argibideak eta iradokizunak

- Gauzak, laguntza, mesedeak eta zerbitzuak eskatu eta eskaini.
- Aholku eta aginduak eman eta eskatu.
- Baimenak eskatu, eman eta ukatu.
- Arren eskatu, exijitu eta kontra egin.
- Atseginez edo erdizka onestea. Luzamendutan ibili.
- Laguntza eskaini, eskatu, onartu eta errefusatu.
- Gonbit egin, eta zerbait, zuzenean edo zeharka, eskaini, onartu eta justifikatuz errefusatu.
- Eskaera, agindu eta aholkuak transmititu.
- Jarduerak planifikatu.
- Zerbait egiteko adorea eman.
- Aurre hartu, ohartarazi eta erreklamatu.
- Komunikazio-egoerako unean eskaerak transmititu.
- Zerbait egiteko aukerak, aukera-eza eta betebeharra adierazi.
- Jarduerak iradoki eta horrelako iradokizunei erantzun.
- Hitzorduak egin eta norbaitekin lotu.
- Norbaiti zerbait egiteko adorea eman edo kendu.

### Diskurtsoaren antolamendua

- Norbaiti hitz egin, eta hitza hartu eta eskatu.

- Hitzaldi formalak eta informalak hasi.
- Diskurtsoa amaituko dela jakinarazi eta diskurtsoa amaitu.
- Gai, adibide, sekuentzia, iritzi edo alboko iruzkinak txertatu.
- Alderdiak argitu, zuzendu, errepikatu eta berriro esan.
- Laburtu.
- Gaia aldatu, gaiari berriz ekin eta gaiaren jarraipena adierazi.
- Interakzioan lagundu: iritziak eskatu, gaia aldatu, solaskideak jarraitzera bultzatu eta txandak eman.
- Interakzioan erreakzionatu: diskurtsoa ulertzen dela erakutsi eta diskurtsoa eten.
- Zenbakitu, sailkatu, kontrajarri, alderatu, nabarmendu, fokalizatu, indartu, hanpatu edo zerbaitez urrundu.
- Telefonoz hitz egin: erantzutea, norbait jar daitekeen galdetu, itzaroteko eskatu, norbaiti nahastu dela adierazi, mezuak utzi, deiaren zergatia azaldu, pertsona bat zergatik jartzen ez den azaldu, solaskideari entzuten duen galdetu, entzuten dagoela jakinarazi, beste dei batzuen berri eman, ulertu duela egiaztatu eta agur esan.
- Gutun eta mezuetan, egitura eta formaltasun- zein informaltasun-maila egokiak erabili.
- SMS mezuetako informazio nagusia laburtu eta ulertu, eta posta elektronikoko mezuei labur eta zehatz erantzun.

## 2. GAITASUN ETA EDUKI SOZIOKULTURAL ETA SOZIOLINGUISTIKOAK

Alderdi soziokultural eta soziolinguistikoak ezagutu eta aplikatzea ahozko testuak eta testu idatziak ulertzeko eta bakarrik zein beste batzuekin sortzeko, konbentzio sozialei, adeitasun-arauei, erregistroei, instituzioei, ohiturei eta errituei, balioei, sinesmen eta jarrerai, estereotipo eta tabuei buruzko alderdiak, hain zuzen; baita hitz gabeko hizkuntza, historia, kulturak eta erkidegoak ere.

### **Harreman sozialak: formaltasuna, distantzia eta hierarkia**

- Gizarte jokamolde egokiak erabili, egoera berezietan ere bai.
- Kasuan kasuko formaltasun- edo informaltasun-mailari dagozkion adeitasun-esamoldeak eta tratamendu-formak ezagutu eta erabili.
- Tratamendu-aldaketen esanahia ezagutu (konfiantza, errespetua, hurbiltzea edo urruntzea).
- Hizketaldietan, kulturaren eta hizkuntzaren interes-seinale eta baliabideekin erreakzionatu eta kooperatu.
- Eguneroko egoeretako esaldi topikoak edo formulak egoki erabili.

### **Hizkuntza estandarra eta aldaerak**

- Formaltasun eta informaltasuneko hizkuntza estandarren erregistro zaindua erraz erabili.
- Egoera formalak eta informalak bereizi (egoera ofizialak, formalak, informalak, intimoak edo errituak) eta jokatzeko era kultura horretan egin ohi denaren arabera moldatu.
- Lagunarteko ohiko esamoldeak ezagutu eta une egokietan erabili (ahozkoa, idatzizkoa, SMSak eta txatak).
- Ahozko eta idatzizko hizkuntza bereizi.

### **Kultura erreferenteak eta usadioak**

Honakoak ezagutu:

- Ohiko esamolde batzuen bi zentzuak edo esanahi gordina.



- Kasuan kasuko kulturen iraingarritzat jo daitezkeen edo tabuak diren alderdi eta hizkuntza-forma ohikoak.
- Ohiko esamolde eta atsotitzen esanahia eta horiek erabili.

### 3. KULTURARTEKO GAITASUN ETA EDUKIAK

Bitartekotza ahalbidetzen duten trebetasunen eta kulturarteko jarrerren ezagutza eta erabilera nahikoa malgua.

- Kontzientzia kulturala eta soziolinguistikoa.
- Ezaguera kultural orokorrak eta espezifikokoak.
- Behaketa eta entzutea.
- Ebaluzioa eta harremanetan jartzea.
- Egokitzapena eta errespetua.

### 4. GAITASUN ETA EDUKI ESTRATEGIKOAK

#### Ahozko testuen eta testu idatzien ulermena

##### Gaitasunak

Aldi bakoitzean zer nahi den edo behar den ulertzeko estrategiak aukeratu eta eraginkortasunez erabili (intentzioa, esanahi orokorra, ideia nagusiak, informazio garrantzitsua, alde eta xehetasun nabarmenak) eta gakoak erabili, testuinguruari dagozkionak, diskurtsiboak, gramatikalak, lexikoak eta ortotipografikoak autorearen jarrera, joera mentala eta intentzioa **inferitzeko** eta baita hiztunen iritziak eta jarrera ere, **implizitoak** eta **esplizitoak**:

- Zereginari eta gaiari buruzko eskemak eta alde zuzeneko informazioa mobilizatu.
- Testu-mota identifikatu, ulermena horretara egokituta.
- Ulermen-motak desberdindu (zentzu orokorra, funtsezko informazioa, puntu nagusiak, xehetasun garrantzitsuak, edo iritzi edo jarrera implizituak).
- Edukiari eta testuinguruari buruzko hipotesiak formulatu.
- Esanahiaren gaineko hipotesiak inferitu eta formulatu elementu adierazgarrien, linguistikoaren eta paralinguistikoaren ulermenetik hasita.
- Hipotesiak egiaztatu: abiapuntuko eskemak eta inferentzia-giltzarriak doitu.
- Hipotesiak birformulatu elementu berrien ulermenetik hasita.

##### Edukiak

##### Planifikazioa

- Komunikazio-egoera kokatu (egoera, berba-lagunak, erregistroa).
- Entzun edo irakurriko denari buruzko hipotesiak egin, bai komunikazioaren eginkizunaz, bai edukiaz. Horretarako, hainbat gauza hartu behar dira abiapuntu gisa: egoera, testuingurua, irudiak, gaia, titulua, doinua eta formatua.

##### Gauzatzea

- Testua aztertu, bilatzen dugunari erantzuten dion jakiteko.
- Lehenengo eta behin, entzuten eta irakurtzen denaren helburua eta zentzu orokorra ulertzen saiatu.
- Testua azkar aztertu, datu espezifikokoak bilatzeko; baldin eta hori bada helburua behintzat.

- Edukiari begira arreta jarri, ondorioak ateratzeko aukera ematen duten funtsezko hitzak aurkitzeko.
- Gai ezagunetan, hitz ezezagunak dituzten esaldien esanahia inferitu.
- Testuingurutik abiatuta, ulermen-hutsuneak konpontzen saiatu.
- Ulermena errazteko, osagai linguistikoei eta ez linguistikoei arreta jarri (irudiak, formatua, intonazioa, keinuak, doinua).
- Irakurgaietan, entzungaietan eta ikasgaietan oharrak idatzi, azpimarratzea eta eskema bat egin.
- Hitz ezezagunen eta zalantzazkoen esanahia asmatzen saiatu:
  - o Ikasleen jakiturian eta egoeran oinarrituta.
  - o Testuaren edo esaldiaren zentzu orokorrean oinarrituta.
  - o Testuingurutik abiatuta (erredundantziak, azalpenak, adibideak, sinonimoak).
  - o Beste hizkuntza batzuen ezagutzatik abiatuta.
  - o Gramatikatik eta lexikotik abiatuta (hitz-familiak, gramatika-kategoriak, sintaxi- eta lexiko-konkordantziak, kokapena, letra-larrien erabilera, eta abar).
- Hitz ezezagunen esanahiari buruzko hipotesiak egin ondoren, hiztegia erabili.
- Ondo ulertu duela jakitea eta egiaztatzea.
- Ulertu ez duena azaltzea.
- Mezua hainbat modutan argitzeko eskatzea.
- Hitz eta esamolde berriak gogoratzea eta erabiltzea.

### **Ahozko testuen eta testu idatzien ekoizpena eta elkarreragina**

Komunikazio egoera bakoitzean diskurtso eta konpentsazio estrategia egokienak menperatu eta efikaziaz erabili esan nahi dena adierazteko moduan. Horretaz gain, era askotako testu konplexuak idatzi euren testuinguru zehatzari egokituta. Horretarako, mezua eta bitartekoak planifikatu hartzailearengan izango duen eragina kontuan izanez, eta zailtasunen bat balego, antzeman ezina izan dadila:

- Buru-eskemak aktibatu jardueraren eta testu espezifikokoaren egiturarako.
- Informazio- eta iritzi-hutsuneak identifikatu eta jakindakotzat zer eman daitekeen baloratu, mezua argi sortuta eta ideia nagusiak eta oinarritzko egitura berezita.
- Testua hartzailearen, testuinguruaren eta kanalaren arabera egokitu, kasu bakoitzaren arabera diskurtso-ezaugarriak eta erregistroa aplikatuta.
- Aldez aurretiko ezagutzei etekin handiena atera eta horretan oinarritu.
- Mezua argitasunez eta koherentziaz adierazi, modu egokian egituratuta eta testu-mota bakoitzeko ereduak eta formulei doituta.
- Zeregina berregokitu (zeregina baino apalagoa den beste bertsio bati ekitea), edo mezua bera (benetan adierazi nahi zen zerbaitetan amore ematea), zailtasunak eta baliabideak baloratu ostean.
- Diskurtsoaren efektua eta arrakasta kontrolatu, argibideak eskatu eta eskainita eta komunikazioa berrezarrita.
- Gabezia linguistikoak berdinu:
  - o prozedura linguistikoaren bidez (adibidez, antzeko esanahia duten hitzak aldatu, edo terminoak edo adierazpenak definitu edo parafraseatu).
  - o Prozedura paralinguistiko edo paratestualen bidez (adibidez, laguntza eskatu, objektuak seinatu, deiktikoak erabili edo argitzen duten ekintzak egin; kulturalki behar den gorputz-hizkuntza erabili – keinuak, aurpegierak, jarrerak, begi- edo gorputz-kontaktua, proxemika–, edo soinu estralinguistiko eta konbentzioaren ezaugarri prosodikoak erabili).

### **Edukiak**

### Planifikazioa

- Komunikazio-egoera kokatu (berba-lagunak, bakoitzak dakitena, egoera, tokia, testu mota), edukiari dagokionez nahiz formari dagokionez egoerara egokitzeko.
- Mezua planifikatu, ideiak modu koherentean antolatu.
- Testu mota desberdinak aztertu, formatura egokitzeko.
- Eskura dituzten baliabideak baloratu eta mezua moldatu; bestela, beharrezko baliabideak bilatu.
- Diskurtsoa kohesionatzeko esaldiak eta adierazleak gogoan izan.
- Solaskideek dakitena eta ez dakitena baloratu.
- Esaldi arruntak memorizatu.

### Gauzatzea

- Hitz eta esamolde egokiak erabili, arreta erakartzeko, hitza hartzeko eta emateko, hasteko, jarraitzeko, parte hartzera gonbidatzeko, solaskidea inplikatzeko eta elkarrizketa amaitzeko.
- Beste batzuek esan dutena argitzeko edo lantzeko eskatu.
- Elkarreraginean lagundu, norbaitek esandakoa errepikatu eta laburtu, eztabaida bideratzeko.
- Ideiak aukeratu, komunikazio-proposamen zehatzak betetzeko.
- Adierazpena koherentziaz antolatu eta lotu.
- Aukeratutako testu motaren formatura egokitu.
- Arriskuak hartu, hizkuntzaz saioak eginez.
- Errutinak erabili, kodea aldatu (ohartuz), beste hizkuntza bateko hitzak egokitu eta parafraseatu (hitz ezagunetatik abiatuta), adibideak eman, beste modu batez adierazi.
- Zailtasunak gainditzeko estrategia sozialak erabili: berba-lagunaren laguntza eskatu, hobeto hitz egiten edo idazten ez jakiteagatik barkamena eskatu; galdetzeko keinuak, esamoldeak eta zeinuak erabili; eta keinuz zein marrazkiz adierazi.
- Elkarrizketa bat hasteko, jarraitzeko eta amaitzeko prozedura sinpleak erabili.
- Eztabaida batean esku hartzea eta hitz egin, hizkera egokia erabiliz.
- Elkarlanean jardun.
- Elkarrizketa laburtu eta, horri esker, gaiari ardatza errazago eman.
- Beste norbaiti parte hartzeko gonbitea egin.
- Ohiko keinuz eta esamoldez, egoki erreakzionatu.
- Laguntza eskatu.
- Elkarri ulertzen diogula ziurtatu.
- Ideien garapena erraztu, esaldiaren zati batzuk berriro formulatuz.

## 5. GAITASUN ETA EDUKI DISKURTSIBOAK

### Gaitasunak

Hizkuntza idatzian eta ahozkoan –bakarrizketetan eta elkarrizketetan-, testuinguruari egokitutako **era askotako** testu ereduak ezagutu, ulertu eta aplikatu:

- Komunikazio-jarduera espezifikoaren esparruaren araberako testuinguruaren ezaugarriak, parte-hartzaileak (nortasun ezaugarriak, harremanak, komunikazio-asmoa) eta egoera (kanala, lekua, denbora).
- Testu-mota, formatua eta egitura.
- Hizkuntza-aldaerak, erregistroa eta estiloa; gaia, ikuspegia eta edukia.
- Patroi sintaktikoak, lexikoak, fonetiko-fonologikoak eta ortotipografikoak.

- Testuaren antolamendua eta egituraketa, hauen araberakoak: generoa (adibidez, kazetaritza-testua>iritzi artikulua); testu-funtzioa (azalpena, deskribapena, narrazioa, exhortazioa, argudiatzea) eta barne-egitura primarioa (hasiera, garapena, ondorioa) eta sekundarioa (perpaua-harremanak, sintaktikoak eta lexikoak, testuinguruak, eta testuinguruaren erreferentziak).

## **Edukiak**

### Erregistroa

- Mezua ulertzeko eta sortzeko, testuingurua kontuan hartu.

### Koherentzia

- Ideiak koherentziaz antolatu (denborari, espazioari eta logikari dagokionez).
- Komunikazio-helburua betetzeko behar beste informazio eta informazio garrantzizkoa eskaini.
- Bi aldeek duten informazioa aintzat hartu, beharrezko informazioa eskaintzeko.

### Konexio eta erreferentzia-baliabideak

- Diskurtsoaren adierazleak eta doinu egokia erabili, diskurtsoak aurrera egiten duela adierazteko.
- Denbora- eta toki-adierazpideak erabili, mezua kokatzeko.
- Beharrezkoa ez denean, gauzak ez errepikatu eta ordeko baliabideak erabili (elipsia, izenordainak, aditzondoak).
- Lokailuak eta puntuazio-ikurrak erabili behar besteko ugaritasunez eta eraginkortasunez diskurtso malgu, argi eta koherenteak sortzeko.
- Gauzak nabarmendu, doinua eta ikur grafikoak erabiliz.

## **Nolako testuak irakurtzen dira?**

Maila honetako testuak egitura argia izaten dute. Informazio esplizitua ematen dute, inplizitua ere bai, baldin eta erraz ulertzeko modukoak badira. Testuak ondo ulertzeko, hizkuntzari loturiko kultura ezagutu behar da neurri batean.

- Testu sozial formalak eta informalak (zoriontzeko, gonbidatzeko, onartzeko, uko egiteko, eskertzeko, eskatzeko, barkamena eskatzeko, agurtzeko, aurkezteko, zoriontzeko eta doluminak emateko).
- Gutun eta mezu pertsonalak (SMSak, mezu elektronikoak, faxak, gutunak, txatak, whatsapp mezuak). Gutun formalak, pertsonalak, akademikoak zein profesionalak (gutunak, mezu elektronikoak, faxak). Administrazioaren agiri estandarizatuak.
- Hiztegiak, entziklopediak.
- Informazioa lortzeko galdera-sortak.
- Web orriak, blogak eta antzekoak.
- Liburuxkak eta prospektuak (turismo eta merkataritza alorrekoak).
- Errezetak.
- Jarraibideak eta erabilpen-arauak.
- Lan-iragarkiak.
- Publizitate-iragarkiak.
- Txostenak.
- Prentsa: albisteak, dibulgazio-artikuluak eta espezialitateari buruzko artikuluak, erreportajeak, elkarrizketak, editorialak, iritzi-artikuluak.
- Administrazioaren testu konbentzionalak.
- Komikiak.
- Abestien hitzak.
- Horoskopoak eta antzekoak.
- Poemak.

- Biografiak.
- Kontakizunak, ipuinak eta nobelak.
- Hizkuntza estandarrez idatzitako antzezlanak.

### **Nolako testuak entzuten dira?**

Maila honetako testuek egitura argia izaten dute. Informazio esplizitua ematen dute, esplizitua ere bai, baldin eta erraz ulertzeko modukoak badira. Testuak ondo ulertzeko, hizkuntzari loturiko kultura ezagutu behar da neurri batean. Entzuteko testuek distortsio akustiko txikia izaten dute. Ahoskera estandarra, edo estandarren gertukoa, izaten da.

- Aurrez aurreko izaera informaleko elkarrizketak.
- Elkarrizketa informalak, atzean zaratatxoak dituztenak eta hainbat gairi buruzkoak: pertsonalak, orokorrak, sozialak, akademikoak, profesionalak eta aisialdikoak. Elkarrekin trukatuak dituzte esperientziak, iruzkinak, ikuspuntuak eta informazioa.
- Elkarrizketa formalak. Ohikoak ez diren gaiei buruzkoak ere bai.
- Telefono bidezko elkarrizketa formalak eta informalak eta bideokonferentziak.
- Eztabaidak.
- Iruzkinak, iritziak eta arrazoiketak, kultura arloko eta gaur egungo gai ezagunei buruzkoak.
- Gizarte-bilerak eta lan-bilerak.
- Merkataritza- eta administrazio-izapideak.
- Elkarrizketak.
- Jarraibideak eta arauak.
- Testuinguruan kokatutako erakusketak, aurkezpenak, deskripzioak eta narrazioak.
- Gai nahiko ezagunen inguruko hitzaldiak.
- Antzezpenak, hizkuntza estandarrez.
- Erantzungailuan grabatutako argibideak eta mezuak.
- Publizitatea (irratia, telebista, eta abar).
- Gaur egungo gertaerak eta gaiak.
- Eguraldi-albisteak.
- Kontakizunak.
- Abestien hitzak (ondo ahoskatutakoak).
- Dokumentalak, telebista- eta bideo-erreportajeak, gai orokorrei buruzkoak.
- Telesailak.
- Hizkuntza estandarrez egindako filmak.

### **Nolako testuak ekoizten dira?**

Atzak egitean, helburu zehatzak lortzeko asmoz ekoizten dira testuak.

### **Ahozko testuak**

- Telefono bidezko elkarrizketa formalak eta informalak, eta bideokonferentziak.
- Kulturaren esparruko eta gaur egungo gai ezagunei buruzko iruzkinak, iritziak eta arrazoiketak egitea.
- Mezuak argitzea, azaltzea, errepikatzea, laburtzea nahiz itzultzea.
- Elkarrizketak.
- Jarraibideak eta arauak.
- Pertsonak, objektuak, jarduerak, zerbitzuak, tokiak, bizi-baldintzak, interesak, sentimenduak eta alderdi soziokulturalak deskribatzea eta alderatzea.
- Gertaerak, esperientziak, pasadizoak eta proiektuak zehatz kontatzea.
- Istorioak kontatzea.

- Gaiak aurkeztea.
- Gai ezagunei buruzko ideiak eta jarduerak azaltzea eta arrazoitzea.
- Liburuak, telebista-programak eta filmak baloratzea.
- Ekitaldiak, liburuak, filmak eta pertsonak aurkeztea.

### Testu idatziak

- Testu sozial formalak eta informalak (zoriontzeko, gonbidatzeko, onartzeko, uko egiteko, eskertzeko, eskatzeko, barkamena eskatzeko, agurtzeko, aurkezteko, zoriontzeko eta doluminak emateko).
- Gutun eta mezu pertsonalak (SMSak, mezu elektronikoak, faxa, gutunak, txatak, whatsapp mezuak); informazioa, interesak, premiak, iritziak, iruzkinak, erreakzioak eta sentimenduak trukatzeko.
- Arlo pertsonaleko eta ikasketa nahiz lan arloko gutun formalak (gutunak, mezu elektronikoak, faxa); informazioa eskatzeko zein igortzeko, laguntza nahiz zerbitzu bat eskatzeko, arazo baten berri emateko, erreklamazio bat egiteko nahiz zerbait eskertzeko.
- Gai ezagunei buruzko mezuak txatetan eta foro birtualetan.
- Gai ezagunei buruzko iritzi- eta arrazoiketa-testuak.
- Txostenak (egoera bat aurkeztea. Aukera baten abantailak eta desabantailak).
- Esperientziak, gertakariak, istorioak eta benetako nahiz alegiazko gertakariak kontatzea.
- Pertsonak, objektuak, jarduerak, prozesuak, zerbitzuak eta tokiak deskribatzea.
- Planak eta egitasmoak deskribatzea.
- Biografia.
- Laburpena.
- Liburu bat aurkeztea.
- Eskema.
- Errezeta.
- Jarraibideak.
- Lan-eskaria.
- Iragarkia.
- Curriculum vitae.
- Egunkaria.

### Ze gai jorratzen dira?

- Norberaren identifikazioa: gustuak, ohiturak, beldurrak, ...
- Etxebizitza, hiria eta ingurua.
- Eguneroko jarduerak.
- Aisialdia.
- Bidaiak.
- Giza-harremanak eta gizarte-harremanak.
- Osasuna eta gorputzaren zaintzak.
- Hezkuntza.
- Erosketak eta jarduera komertzialak.
- Elikadura (Janaria).
- Zerbitzuak.
- Hizkuntza eta komunikazioa.
- Eguraldia, aroa eta inguramena.
- Zientzia eta teknologia.
- Kultura aniztasunarekin lotutako alderdi kulturalak.

## 6. GAITASUN ETA EDUKI LINGUISTIKOAK

### GAITASUN ETA EDUKI SINTAKTIKOAK

#### PERPAUSA

- Perpaus mota ezberdinen intonazioa.
- Subjektu – predikatu – atributu – komuntaduraren finkatzea. Zalantzazko aditz komuntadurak: *begiratu, deitu, eragin, gonbidatu, itxoin...*; aditzarekin pertsona eta numeroz komuntaduran datozen elementuen elipsia.
- Perpausaren elementuen ordena. Markatua/ez markatua kontzeptuetan sakontzea.
- **Interjekzioak: *alajaina!, bai horixe!...***

#### Perpaus bakuna

- Galderazko perpausak
  - o Galdegaia galderazko perpausetan
  - o “Al” partikula: aditz nagusiaren eta laguntzailearen artekoa (*Berak egin al zuen?...*)
- Adierazpen-perpausak
  - o Baiezkoak. Galdegaia baiezko perpausetan
  - o Ezezkoak. Galdegaia ezezko perpausetan
- Harridura-perpausak
  - o Erakusleen bidez osatuak: (*Hau hotza!*)
  - o Galdetzaileren bidez: (*ZER / ZEIN itsusia (den)!*)
  - o Baiezkoak: (*BAI polita (dela)!, BAIETZ etorri!*)
  - o Ezezkoak: (*EZTA pentsatu ere!, EZETZ irabazi!*)
  - o Aginte-perpausak: (*Zatoz azkar! Geldi hor! Ez egin hori!*)

#### Perpaus elkartuak

- Menderakuntza:

**Izen funtziozko menderakuntza.** Perpaus konpletiboak eta zehar-galderak:

- o *-(e)nik* (*Ez dut esan egingo dudarik*).
- o Nominalizazioa: *-t(z)reak, -t(z)eari* (*Ez diot beldurrik barregarri geratzeari*).
- o *beldur izan* (*Beldur naiz ez ote dugun behin betiko galdu*).
- o desioa, beharra eta abar adierazteko aditzez osatutako osagarriak: jokatu gabeko aditzekin (*Nahi al duzu laguntzea?, Bihar lehentxoago etortzerik ba al duzu?*); jokatutakoekin (*Lana gaur arratsalderako buka dezazuen behar dugu*).

**Izenlagun funtziozko menderakuntza.** Erlatibozko perpausak:

- o *-(e)n + kasu marka* (*Kasu egin esaten dizunari*).
- o galdegilea + partizipioa (*Ez daukat zer jan, nora joan...*).
- o *-(e)n / -lako* (*Salbatuko diren esperantzarik gabe / Galdu direlako zurrumurrua zabaldu da*)

**Adizlagun funtziozko menderakuntza:**

#### Perpaus kontzesiboak:

- o Jokatutako aditzekin osatutako formen erabilera sendotu: *-(e)n arren* (*Egin dezakeen arren, ez du egin nahi*), *nahiz eta -(e)n* (*Nahiz eta bigarren mailan gauden, burua beti goian*), *ba-... ere* (*Sinesgaitza bazirudien ere, iritsi ginen azkenean*), *-la(rik) ere* (*Nahi duen guztia erosten diotela ere, sekula ez da konformatzen*).

- o Jokatu gabeko aditzekin: *-ta ere, -(r)ik ere (Mesedez eskatuta ere, ez zituen gauzak berehalakoan uzten)*

**Konparaziozko perpausak:**

- o Kualitatea:
  - *honen, horren, hain (Nola kexa zaitezke hain etxe handia izanda?).*
  - *-(e)n bezain (Ez da dirudien bezain gaiztoa).*
  - *-(e)n bezalakoa (Zaren bezalakoa izanda, ez zara urruti iritsiko).*
- o Kantitatea:
  - *-(e)n beste, adina (Nahi duzuen beste jan dezakezue).*
  - *honenbeste, horrenbeste, hainbeste (Ez ezazu horrenbeste hitz egin eta jan!)*

**Baldintzazko perpausak:**

- o Jokatutako aditzen erabileran sakondu:
  - *Etorkizuneko irrealak (Esango banizu, ez zenuke sinetsiko),*
  - *Iraganeko irrealak (Esan banizu, ez zenuen / zenukeen sinetsiko).*
- o Jokatu gabeko aditzekin:
  - *ezean (Agindu bezala egin ezean, ez dugu lana ordainduko).*
  - *ezik (Bidea erakutsi ezik, nekez aurkituko dugu borda hori).*

**Kausazko perpausak:**

- o Jokatutako aditzekin:
  - *-(e)la-eta (Buruko mina zuela-eta, etxera laguntzeko eskatu zidan).*
  - *-(e)nez gero (Garaipena lortu duzuenez gero, jai har dezakezue).*
- o Jokatu gabeko aditzekin:
  - *-t(z)eagatik (Esker ona erakutsi zigun jarrera horri eusteagatik).*
  - *-t(z)earren (Ordenagailua konpontzearen eman dizkidate botila hauek).*
  - *-(e)la kausa, medio (Edana zela kausa bikotea hautsi egin zen).*

**Helburuzko perpausak:**

- o Jokatutako aditzekin:
  - *Subjuntibozkoak (Erosoago egon zaitezten ekarri dizut burukoa).*
- o Jokatu gabeko aditzekin:
  - *-t(z)eagatik (Biharko eginkizunak bideratuta uzteagatik geratu naiz).*
  - *-t(z)en/-t(z)era (Azterketa egiten joan dira)*
  - *-t(z)earren (Denbora betetzearren matrikulatu naiz gimnasioan).*

**Denborazko perpausak (ikasitako zenbait formaren erabilera indartuz):**

- o Aurrekotasuna:
  - *partizipioa + orduko (Hizketan entzun orduko ezagutu nau).*
  - *-t(z)erako(an) (Hitzaldia bukatzerako bagenekien zer erantzun jasoko genuen).*
- o Berehalakotasuna:
  - *partizipioa + bezain agudo (Berria jakin bezain agudo abiatu ginen).*
  - *partizipioa + eta laster, berehala, agudo (Atea itxi eta laster entzun nuen eztanda).*
  - *-takoan (Bazkaria amaitutakoan aterako gara).*
  - *-(e)ne(ra)ko (Zelaian agertu zeneko, txistuka hasi ziren ikusleak).*
- o Gerokotasuna:
  - *partizipioa + ostean, ondoren, eta gero (Ikusi beharrekoak ikusi ostean, alde egin genuen).*
  - *-(e)netik (Etxea galdu zuenetik, zubipean bizi da).*
- o Aldiberekotasuna:



- *-t(z)ean (Egia entzutean lotsatu egin zen).*
- o Iraupena:
  - *-(e)n artean, bitartean (Haserre zaudeten artean, hobe duzue ez elkartzea; adiskidetu bitartean, ez zaituztet gonbidatuko).*
  - *-harik eta ... arte (Harik eta sendatu arte, geldi egon beharko duzu).*
- o Maiztasuna:
  - *-(e)n bakoitzean, guztietan, gehienetan (Ikusten zaitudan bakoitzean, jaten harrapatzen zaitut).*

#### Moduzko perpausak:

- o Jokatutako aditzekin:
  - *-(e)n eran, legez, antzera (Besteek egin duten antzera egizue zeuek ere).*
  - *-(e)nez (Lehenago esan dudanez, hori ez da egia).*
  - *ba-... bezala (Aberatsak bagina bezala zabilta erruz gastatzen).*
  - *(n) bezalakoa (Zaren bezalakoa zara).*
  - *-(e)la(rik) (Sofan erdi-etzanda zegoen, hankak mahai gainean zituela; Txiklela jaten ari zela hasi zaigu hizketan)*
- o Jokatu gabeko aditzekin:
  - *-t(z)eko moduan (Lanean hasteko moduan nago ni!).*
  - *ahala (Orduak aurrera joan ahala, esperantza etsipen bihurtu zen).*
  - *-ta, -(r)ik (Ulertu ezinik nabil zergatik egin duzun hori).*
  - *-(e)z (Horma urratuz eta urratuz, azkenean agertu ziren margoak).*
- o Esamoldeak:
  - *nolako...halako (Nolako eguraldia, halako ekintzak antolatuko ditugu).*

## IZEN SINTAGMA

### Deklinabidea

- Bokalez zein kontsonantez bukatutako izenak. Arruntak eta bereziak.
- Bereziki landuko dira izenordeak, determinatzaile zehaztugabeak eta erakusleak.
- Kasu guztiak.
- Adjektiboen eta determinatzaileen komunztadura izenarekin eta izenordeekin.

### Izena

- Izen motak eta generoa, numeroa, eta kasua: sakontzea eta zabaltzea.
- Generoa: kasu bereziak (*mais/maistra, printze/printzesa...*); genero neutroa (*aita-amak, seme-alabak, senar-emazteak...*).

### Izenordainak:

- Pertsonalak: bera, eurak
- Pertsona izenordain indartuen erabilera sendotzea: *neu/neure, geu/geure...*
- Erakusle indartuak: *hauxe, horixe, huraxe, hauexek, horiexek, haiexek*
- Izenordain zehaztugabeak: galdetzailatik eratorritako izenordainak: nor edo nor, nornahi, norbera, nor bere, zer edo zer, zernahi ...
- Bihurkariak: *neure burua, zeure burua, bere burua...*
- Elkarkariak: *elkar, bata bestea*

### Determinatzaileak:

- Artikulu zehaztuak: *entzuleak / entzuleok.*
- Zenbatzaile zehaztuak: zenbait erabilera sendotu: *ehunekoak (ehuneko zazpi), banatzaileak (seina, bana, ...), zenbait esapide (bospasei, hogeiren) bat, baten bat, gutxi gora-behera, milatik gora...*
- Zehaztugabeak: *zenbait, horrenbeste, hainbat, ugari, dezente, makina bat, ...*
- Orokorrak: *dena, guztia, oso, bete, oro.*

### Izenaren osagarriak

- Hitz elkarketa: *urte amaiera, kale ikuskizunak, ...*
- Izenlagunen sorrera:
  - o Deklinabide kasuei *-ko* atzikia erantsita: *zaharreganako begirunea, tontorrerainoko xidorra, ikasleentzako kopia; guretzakoa falta.*
  - o Izena + *-ko* (*hitzeko gizona*); izena + adjektiboa + *-ko* (*indar handiko pertsona*); zenbatzailea + *-ko*: (*bi urteko umea, egun osoko lana, zenbateko prezioa du?...).*
  - o Norekiko (*kanpotarrekiko harremanak*)
  - o Norenganako (*zaharreganako begirunea*)
  - o Norainoko (*hemendik aterainoko sugea*)
- Graduatzaile askatuak: adjektiboaren ezkerrean: *sano, biziki, txit, sobera, ondo* (*biziki ederra, txit polita, ondo arin ...*); adjektiboaren eskuinean: *samar* (*gaizto samarra*).
- Zailtasun bereziko adjektiboak: *bera/berdina, huts, beste bat/besteia ...*

### Izen sintagmaren osagai gehiago:

- Aposizioa (*Asierri, nirekin ateratzen zenari, gertatu zaio hori*); komunztadura.
- Postposizio bitartez sorturiko izenlagunak (*erretzaileen aurkako/aldeko iritzia, itzulpengintzari buruzko hitzaldia...*)
- Erlatibozko substantibatuak.  
Aditz jokatuak: *-(e)n + ergatiboa, absolutua, datiboa edo partitiboa* (*Autoa gidatu bitartean erretzen dutenek bi puntu galduko dute. Ez dut [inor] ezagutu hori benetan sinesten duenik*).  
Jokatu gabeak: partizipioa + *-tako/- (r)iko* (*Proba gainditutakoei agiria emango zaie*) eta partizipioa + gabeko (*hemezortzi urte bete gabekoek debekatuta dute sarrera*).

### ADITZ SINTAGMA

- Aditzak perpausaren beste elementuekin izan behar duen komunztadura arazoetan sakontzea.
- Aditz trinkoak: *nor* (*etzan*), *nor-nori* (*egon -dagokizu-, etorri -datorkizu-, joan -doakizu-, jario -dario-*), *nor-nork* (*esan, irudi, erabili, iraun, ihardun -erabilienak-*), *nor-nori-nork* (*iritzi*); orain aldia eta iragana.
- Aditz laguntzailearen erabileran sakondu: *nor, nor-nork, nor-nori-nork* eta inpersonalak; baldintza, ahalera, subjuntiboa eta agintera.
- Indikatibozko aditz formen denbora eta aspektuak: ikasitakoa sakondu eta zabaldu, zailtasunak izan ditzaketan forma erabilienetan azpimarra jarritz.
- Ekintzen korrelazioa eta denbora - moduen komunztadura. Denboraren trataera informazioa ematean.
- Partizipioak: *-Ø* (*kotxe lapurtu batean egin zuten ihes*), *-ta* (*amaituta ditugu lanak*), *-(r)ik* (*asperturik zebiltzan*).
- Nominalizazioaren erabileran sakontzea: *-t(z)ea* (*Ez da lan makala gazteentzat pisua aurkitzea*), *-t(z)ek* (*Zu berriz ikusteak poza ematen dit*), *-t(z)erik* (*Ez dago zurekin asmatzerik*).
- Forma perifrastikoen erabilera sendotzea:  
*-t(z)ea gustatu, erabaki, ahaztu, ...; -t(z)en jakin, ikasi, lagundu, ...; -t(z)era behartu, ausartu, gonbidatu, ...; -t(z)eko prest egon, asmoa izan, gai izan, ...; -t(z)eari utzi, ekin, iritzi.*
- Gerundioaren erabilera denborazko eta moduzko perpausetan:  
*-t(z)en* (*Erortzen ikusi nuen*); *-z* (*Ereriz ikasten da oinez*); *-ta / -(r)ik* (*Aspirina hartuta joan zait buruko mina*); *-ka* (*Deika hasi zen*); *-la* (*Negarra zeriola sartu zen ezkaratzera*).
- Aspektu burutua adierazteko *izan*-en erabilera (*Askotan joan izan naiz*); partizipio nominalizatua (*Musika hori oso entzuna izan da*).
- Aspektu burutugabea *ohi* erabiliz (*Igandeetan joan ohi naiz*).

- Modalitatea adierazteko esamoldeen sendotzea:
  - o Beharrizana: *ezinbestekoa, nahitaezkoa da ...-t(z)ea.*
  - o Derrigortasuna: *-t(z)en/-t(z)era behartu (Hori egitera behartu naute).*
  - o Ahal izatea: *-tzeko gai izan, -tzea izan, egon, ukan, eduki eta ahalera (galde diezaioket, ikus genezake, etor nintekeen).*
  - o Baimena (*Utziko didazu sartzen?, Ba al dut sartzerik?, Sar liteke?*).
  - o Aukera (*Aurkitzen bazaitu, ikusiko duzu; Lotsarik bazenu, ez zenioke galdetuko).*
  - o Debekua, aditza jokatzuz (*Ez iezadazu ezer eska.*).
  - o Asmoa: *-t(z)ekoa izan, -t(z)ekotan egon/izan.*
- Partikula modalak:
  - o Ote, ete (*Ez ote da hondatuko?*)
  - o Omen, ei (*Galdu egin omen da*)
- Subjuntiboa perpaus bakunean zein mendekoetan.
- Boz aktiboa (*Makinek zubi zaharra eraitsi dute*) eta pasiboa (*Zubi zaharra makinek eraitsia izan da*).
- Aditz lokuzioak: *logura, haserre, komeni, ... izan; balio, inporta, merezi, ... ukan; amets, barre, negar, ... egin; kontuan, parte, loak, aintzat... hartu; denbora, amore, musu, gogoak..., eman; adarra, larrua, ... jo.*

### Adberbia

- Denboraren (*harrezkero, arestian, artean...*), moduaren (*blai, dotore, itsu-itsuan...*) eta lekutasunaren adierazpena (*gertu, hurrean...*).
- Gradua: erabateko ezeztapena (*batere*); nahikotasuna (*nahiko, aski samar*); maila gorena (*oso, biziko, asko, izugarri, itzel*); absolutua (*erabat, guztiz, zeharo, sano*); gehiegizkoa (*-egi, sobera, lar*); beste maila batzuk (*erdi, benetan*)
- Kantitate edo gradu adberbioak beste kategoria gramatikalak eraldatzen (*ozta-ozta gainditu du, oso gertu bizi gara*).
- Eratorriak: *-oro / -ero (egunero), -ki (arinki), -ro (astiro), -kiro (emekiro), -ka (hoska)* atzizkiak.
- Aditzondo elkartuak: *edo- (edonola), -bait (nolabait), -nahi (noiznahi), i- (inon).*
- Errepika bidezko indartzea: (*doi-doi, zuzen-zuzenean...*).

### Loturak

- o Lokailuak:
  - Alborakuntza (perpausak eta hitzak josteko): emendiozkoak (*behinik behin, bederen, halaber, orobat...*), hautakariak (*osterantzean, gainerakoan...*), aurkaritzakoak (*haatik, hala eta guztiz ere, aitzitik...*), ondoriozkoak (*hortaz, halatan, horrenbestez...*) eta azalpenezkoak (*zeren, izan ere, hain zuzen ere*).
  - Menderakuntza lokailuak (ikus PERPAUS ELKARTUAK).
- o Preposizioak eta posposizioak:
  - *zeren, ze, harik eta* preposizioen erabilera.
  - Hedadura zabaleko posposizioen erabilera sendotzea: *noren alde(an), arabera, arte(an), aurka / kontra, aurrean / aitzinean, atzean / ostean, azpian, barruan / barnean, beharrean, bidez / bitartez, esku, bizkar, gainean, inguruan, kontu / kabuz, menpe(an), ondoan / alboan / aldamenean, ordez, parean, partez, truk(e); zer edo zerik ezean, faltan; nori esker; zerez gain(era), haratago; non zehar, gora, behera, barrena; nondik kanpo, at, landa.*
  - Aditz lokuzioak: *begira, bila, eske, zain, so, jabe.*

## EDUKI DISKURTSIBOAK

### Kohesioa

#### Kohesio prozedurak

- Errepikapenak (*Ez da ona haragia jatea, ez da ona gozoa jatea... zer jango dugu, ba?*)
- Ordezkatze prozedurak, erreferente argiekin: elipsia, izenordeak eta adberbioak edo esamolde anaforikoak (*horixe, hantxe, berak, kontua da, zera..., hau da...*)
- Baliabide lexikalak: sinonimoak (*nagusi, buruzagi..*), ohiko kontzeptuen hiperonimoak (irratia, komunikabidea), hiponimoak (*lehendakaria, presidentea, mandataria ...*), nominalizazioa.
- Aditz denboraren koherentzia (*Bihar bukatzeko asmoa zutela esan zuten/ bihar bukatzeko asmoa dutela esan zuen*)

#### Gaiari eustea

- Mugagabearen lekuan mugatua erabiltzea aipatutako sintagmetan (*Bi gizon sartu ziren; denok itzuli ginen gizonengana*).
- Baliabide lexikalak: sinonimoak (*gizon zaharra, agurea*), hiper / hiponimoak (*zulagailu / tresna*), definizio barneko hitz bat erabiliz (*agintari, presidente...*), nominalizazioa (*zortzietan aterako dira, zortzietan izango da irteera...*).
- Nukleoaren elipsia erreferentzia zuzeneko testuinguruetan: (*Hamar pisu begiratu ditugu gutxienez asteburuan, baina alferrik: batzuk garestiegiak zirela, eta merkeagoak... zulo zikin hutsak.*)

#### Aditz koherentzia

- Diskurtsoaren aditz koherentzia (denboraren haria, gertakarien pilaketa, atzera egitea); aditz denboreko balio aldaketak (orain aldia iraganaren lekuan informazioa berritzeko; gero aldia eta jakinaren gaineko gero aldia) (*Honez gero jakingo duzu; Barkatu, honez gero jakingo zenuelakoan esan dut*); kortesiazko iragana orain aldiaren lekuan (*Egunon, praka batzuk nahi nituen*).
- Informazioa igorri edota aipatzeko baliabideak: zehar-estiloaren komunztadura denbora aldatzen denean (*Atzo joango zela esan zuen*).

### Konexioa

- Antolatzaileak:  
Hasiera: *agurrak, (Jaun [txit] agurgarria, jaunak, jaun-andreok, lagunok...)*, aurkezpenak, gairako sarrerak (*hasteko esan dezadan, lehenik eta behin, aztertuko dugun gaia, lehen lehenik idazlan (mintzaldi) honen helburua, bazen behin, ezer baino lehen,...*) gaia aldatzeko sarrerak (*gaia aldatuz, harira ez badator ere...*)  
Egituraketa: irekiera (*hasteko; lehenik eta behin; ezer baino lehen*), jarraipena (*era berean; bestalde ...*) eta itxiera (*bukatzeko, laburbilduz, -lakoan...*); ikuspegia (*tamalez, jakina denez...*), digresioa (*bestela ere*)  
Birformulazioa: azaldu (*hau da, hortaz, bestela esanda...*), zuzendu (*hobeto esanda, zehatz esateko, zehazkiago...*), alboratu (*dena dela*), gogora ekarri (*ezaguna den bezala...*), laburbildu eta konklusioak atera (*beraz, guztira...*).
- Puntuazioa eta paragrafoa:  
Puntuazio markak erabili diskurtsoaren markatzaile gisa.  
Paragrafoaren eta diskurtsoaren gaien arteko harremana.  
Sailkapenak, azpimarrak eta erreferentziak egiteko marka grafikoak.  
Intonazioa eta etenak.

### Tematizazioa, fokalizazioa

- Perpauseko osagaien orden markatuaz eta ez markatuaz ohartzea: tema-remak (mintzagaia-galdegaiak) (*Julenek bidaliko digu [Mertxek ezin du-eta]; Etzi edo bidaliko digu Julenek [oraindik ez baitago prest]; Bidali egingo digu Julenek [ekarri beharrean]*).
- Mintzagaiaren elipsia (*Zortzietako trenean datorrela [larunbatean] [dio zure amak]*).
- Mintzagaiaren eta galdegaiaren markatzea baliabide gramatikalak direla medio: forma indartuak (*orduantxe; hantxe bertan; harexek berak*), ordena (*Gogoa daukat ikaragarria!*), egiturak (*Ez du gogoratu ere egiten*), lexikoa (*Jan?, irentsi egin duzu!*), intonazioa (*DIRUA behar duzula? Neronek ere bai!*).
- Elementu bat indartzeko eta fokalizatzeko baliabideak: harridura (*A ze suertea daukaten batzuek!; Hi haiz hi!*), gaia zehazteko esamoldeak (*Egia esan, ...; Bada, zer nahi duzu esatea., Nor etorriko eta Sabino ...*), zerrendatzea (*Dei egin dizut eta komunikatzen zegoen, eta piska baten itxaron dut eta berriz deitu...*), errepika (*Neke-neke eginda heldu zen; Zain eta zain izan naiz hor zutik*), lexiko berrindartua (*izugarri garestia; sekulako ederra;*), gradua (*denetan onena; inoizko pozez*), aurrizkiak eta atzizkiak (*\*superrezaguna, zurrutada*), luzaketa fonikoa (*Eneee! Edeeeerra da, gero!*), silabakolpeak (*Nola esan behar dizut? EZ-DE-LA-NI-RE-E-RRU-A!*).

### Deixia

- Egoera ezberdinetako (elkarrizketa, telefono, txat, gutun eta abar) hitzaldietako eta kontakizunetako seinalatze moduak: izenordainen, erakusleen eta denbora-leku adierazleen erabilera (*ni, zu ↔ bera, orain, une honetan, gaur, atzo, bihar... ↔ orduan, une horretan, egun berean, aurreko egunean, hurrengo egunean ..., hemen, hori, etorri, ekarri ↔ hara, hori, joan, eraman*).
- Deitikoaren markatzaileen eraldaketa leku-denborazko aldagaien kariatara: izenordainak, erakusleak eta leku-denborazko esamoldeak. Ikuspuntuaren eta erregistroaren araberrako aldeak (*Zatoz hona agudo! > Hona etortzeko esan zidan / Hara joateko esan zidan / Zuregana joateko esan zenidan*).

### Kortesia:

- Plural hurbilaren erabilera (*Euskaldunon esku dago hizkuntzaren geroa; Emakumeok batzuetan ulertzen zailak zarete benetan*).
- Igorlearen presentzia leundu honako esapideak erabiliz: inbertsonala (*Komuneko papera bukatu da, informazio guztia ezabatu zait*), 2. pertsona (*bitzita guztian zaintzen dituzu eta...*), zehaztugabea (*batek daki!*), gu subjektua (*gurean ez da horrela egiten*) eta biok esamoldea (*Jon eta biok hasiko gara*). Hartzailearen presentzia leuntzeko baliabideak: inbertsonala (*berehala konpondu beharko litzateke*) edo plurala (*denak berdina zarete*).
- Denbora eta aspektu ñabardurak: burutua (*askotan joan izan gara berarekin, atxilotuak izan dira*), burutugabea (*honela egin ohi dugu, honela egin daroagu, zera nahi nuen*), etorkizuna (*etortzekoa da, etorri behar du*), baldintza (*egingo zenidake mesede bat?*).
- Elkartasuna eta lankidetzaren adierazteko esamoldeak (*bai noski!, nola ez ba?, galdetzea ere!...*)

### Inferentzia

- Zenbait egoera komunikatibotan mezu inplizitua duten esapideak (*Zeinek irabazi du? -Esatea ere!*).
- Mezu ambiguo edo ezkutuak. (*"Egosi egingo gara", leihoa irekitzeko eskatuz emandako mezua*).
- Aldaera morfologikoetan ezkuta daitezkeen ñabardurak: (*Ez dut esan zuk lapurtu duzula / Ez dut esan zuk lapurtu duzunik*).
- Mezu inplizitua daramaten erantzun laburrak (*-Zigarrotxo bat nahi? -Utikan!*)
- Ironiazko mezuak (*Umetxo batek ere asmatuko luke!*).

### Elkarrizketa (jarrera eta erregistro ezberdinetan)

- Izenordearen erabilera txanda aldaketan markatzaile, subjektibotasunaren adierazle (*-Zer iruditzen? -Ba, nik uste ondo dagoela; Ondo dago, nik uste; Zuk nahi duzuna egin, baina ni ez noa*).
- Elkarrizketa markatzaileak (*norbaitengana zuzendu, agurtu, hizketan hasi, elkar lagundu...*)

- Mezuen aurreko erreakzioak (*Holakorik!; Ez da egia izango!; Gezurra dirudi*), indartze esamoldeak (*Ez dago esan beharrik; Dudarik gabe*), mintzakidea inplikatzekoak (*Ez da hala?; Ez duzu uste?; Ondo dakizunez,...*).
- Ohiko egoera eta elkarrizketetarako baliabideak ("bikote biziak"): adibidez, telefonozko galde-erantzunak (*-Urlia, mesedez? -Itxaron pixka batean / Berehala jarriko da / Une honetan ez dago / Orain ezin da jarri / Noren partez?*), eskaintza-onarpen/errefusak (*... nahi zenuke? / Nahi al duzu... - Bai, ba; Nola ez!; Zergatik ez!; Estimutzen dizut, baina...; Pozik gainera!; Benetan eskertzen dizut; Tamala da baina...; Ezinezkoa dut*), zerbaitetan tematu (*Ea ba!; Baietz, mesedez*), eskatu-etsi-eman (*-Mesede bat egingo didazu?; -Lagunduko didazu, mesedez? / -Bai, noski, zer behar duzu?; -Pasadazu ogia. / -Tori; Hor duzu*).

## GAITASUN ETA EDUKI LEXIKOAK

### Lexikoa

- Aurreko kapituluetan zehaztu diren egoera formal eta informaletako funtzioak burutzeko behar diren esamoldeak.
- Landutako egoera eta gaietarako hiztegi zabala: aldaera formal eta informalak, estandarrak eta familia artekoak edo profesionalak.
- Sintagma eta hitz sekuentzia lexikalizatuak, bikote lexiko erabiliak (*mahaia jaso, hutsaren hurrengo, behar gorri...*).
- Ohiko esamolde eta esaerak (*gureak egin; bereak eta bost, txolindu, hitz eta pitz...*).
- Konparazio irudi hedatuak (*gerezia bezain gorria; taloa baino goxoago; kea baino alferragoa...*)
- Esaera zaharrak (*Zozoak beleari ipurbeltz; Txapela buruan, ibili munduan...*).

### Hitzen sorrera eta osaera

Eratorkiak:

Aurrizkiak: des- (desegin), aurre- (*aurreikusi, aurreiritzi*).

Atzizkiak: -(k)ada (*bultzada*); -(k)ari (*opari*); -(k)era (*ibilera*), -(t)eria (*tresneria*); -bera (*hozpera*), -era (*luzera*), -gintza (*etxegintza*), -go (*jabego*), -keta (*azterketa*), -ki (*beroki, txerriki*), -kin (*etorkin*), -kizun (*ospakizun*), -koi (*etxekoi*), -kunde (*erakunde*), -kuntza (*aldakuntza*), -men/pen (*oroimen, askapen*), -te (*eurite*), -ti/di (*pinadi*), -tu (*gaztetu*), -tun (*jakitun*), -tza (*nekazaritza, jendetza*), -aldi, -aro, -gailu, -gai, -kor, -gaitz...

Elkartuak:

Izena+izena (*maisua-maistrak, oilo salda...*), aditz erroa+izena (*logela, idazlan...*), aditz erroa+adjektiboa (*ezkonberri, ulerterraz...*) izena+adjektiboa (*katagorri, gibelurdi...*) (eratorria)+izena+(eratorria) (*hurbiltze saio, odol emaile...*), partizipioa+partizipioa (*joan-etorri, harreman...*), adjektiboa+adjektiboa (*luze-labur, hotz-bero...*), izena+aditza (*denbora-pasa, eraberritu...*), adjektiboa+aditza (*ederretsi...*) galdegilea erabilia eraturakoak (*norgehiagoka, nonzerberri..*)

Onomatopeiak (*plisti-plasta, kili-kolo, zurrumurru, dinbi-danba...*).

Sigla erabilienak (*EAE, AEK, EH, AEB, ...*).

### Esanahia

Landutako gaiei dagozkien eremuak (*lur orotako ibilgailua, auto-pilaketa, galga, argiztapena...*).

Proformak (*esanahi irekiko hitzak: jo, kontu, zera...*) eta testuinguruan esanahi bertsukoekin trukatu (*esan > adierazi, ezagutzera eman, azaldu, kontatu, aipatu, iruzkin egin...*)

Hitzen osagaiak identifikatu eta definizioak ematen jakin.

Lagun faltsuak eta hitzen arteko interferentziak (*beste hizkuntzetako hitzekin bereziki*).

## GAITASUN ETA EDUKI FONETIKO-FONOLOGIKOAK

- Euskararen bokalak eta kontsonanteak ezagutu eta ahoskatu.
- /g/-ren ahoskatzea i, e bokalen aurrean (*filologia, geografia...*).
- /j/-ren ahoskatzea (*jo, jauna...*)
- Euskararen fonema txistukariak: /tz/, /tx/, /ts/, /z/, /s/, /x/
- Palatalizazioa (/is/ > (ix): *isilik* > (ixilik), /in/ > (iñ): *mina* > (miña)...
- Bokalepentesia: /e/ Kontsonante-epentesia: /r/ (*hirurehun, lauretan...*)
- Asimilazioak eta elipsiak: (*ez dira/ (eztira), ez naiz/ (enaiz)*)
- Diptongoak: /ai/ *aizu*, /ei/ *zein*, /oi/ *goi*, /au/ *auzo*, /eu/ *euri*
- Hiatoak
- Aldaketa fonetikoak: Bustidura. Gortze-prozesua: bdg/ ptk
- Intonazioa: euskararen intonazioa
- Euskararen hitz luzeen azentu bikoitza: (*osásuná, emákumeá...*)
- Komunikazio funtzioei egokitutako intonazioa.

## GAITASUN ETA EDUKI ORTOTIPOGRAFIKOAK

### Ortografia

- -r-ren aurrean bokala mailegu zaharretan: *arropa, errege, erloju...*
- -nb eta np grafiak
- Euskararen fonema txistukariak: /tz/, /tx/, /ts/, /z/, /s/, /x/
- Maileguen egokitzapena: /x/-dunak (*xenofobia, taxi, testu, esportazio...*) /g/j/y/-dunak (*birjina, jogurt...*), hasierako /r/- edo /s/-dunak (*arratoi, radar, izpiritu, stop...*).
- Izen eta adjektiboetan bustidura adierazteko: -dd-, -ll-, -tt-
- H grafia: hitz bakunak (*hau, harri; al ≠ ahal...*) eta elkartuak (*arbel, harrigarri...*).
- Atzerriko ohiko izenen idazkera (*Erroma, Bartzelona, Madril, Pirinioak...*)
- Zenbakien (*bi kilo eta erdi*), ordinalen (*8.a...*) eta daten idazkera (*2018ko...*).
- Letra larriak eta xeheak nola erabiltzen diren
- Zeinu bereziak: apostrofoa (*agur t'erdia*), marratxoa (*senar-emazte*).
- Lerro bukaerako silaba banaketa irizpide silabikoari jarraituz.
- Laburdurak (*kg, etab., adib., zk., ...*) eta siglak (*EHUko irakasletoa, NBen bilera, AEBetako atletak, HIESaren zabalkundea...*).

### Puntuazioa

- Galde- zein harridura-ikurra
- Bi puntuak. Zerrendatzeko (*Erosketak: ogia, esnea...*), ordua emateko (*7:15ean dator autobusa*), esaldiarren lehen zatia argitzeko, frogatzeko edo laburbiltzeko (*Jendea berokia jantzita dabil: hotz egiten du*), hitzez hitzeko aipameneren aurrean (*Maisuak zera esan zion: isildu!*)
- Puntua. Esaldi eta esapide sinpleen bukaeran (*Aitor naiz*), zenbakiz adierazitako ordinaletako "garren" ordezkatzeko (*XX. mendean...*), hainbat laburduratan: or. (*orrialdea*); etab. (*eta abar*), zenbakietan (*7.545 liburu*)
- Eten-puntuak. Esaldia bukatu gabe utzi dela adierazteko (*Erosketak: ogia, esnea...*)
- Koma. Elkarren kideko zatiak zerrendatzeko (*Ogia, esnea, dilistak...*), data emateko (*Donostian, 2003ko uztailaren 2an*), perpaus elkartuetan menpeko esaldien atzetik (denborazkoak, kontzesiboak...) (*Etortzen denean, esango diogu*), deikia: esaldi-hasieran zein -tartean doanean (*Ekarri, Idoia, eskuan daukazuna! Jon, etorri hona!*), testu-antolatzaileen ondoren (*Atzo, auzoko tabernan...*), banakariak (*bai..., bai...; ez..., ez... eta abar*) (*Guk bai ardoa, bai sagardoa edan genituen*). Tartekiak ere koma artean idatzi ohi dira (*Kontu honek, noski, hankaz gora jarri du proiektua. Bihar, lagunekin batera, mendira noa.*)

## EBALUAZIOA

### Entzunaren ulermena

- Hizkuntza horretan hitz egiten duten lekuetako kulturen ezaugarriei eta ahozko komunikazioaren bereizgarriei buruzko ezagutzak eraginkortasunez aplikatzen ditu.
- Erregistro, estilo eta azentu estandar desberdinak atzematen ditu.
- Testuaren zentzu orokorra, funtsezko informazioa, puntu nagusiak, xehetasun garrantzitsuenak ulertzen ditu.
- Hitzunen iritzi eta jarrera inplizitu zein esplizituak ulertzen ditu.
- Testuaren komunikazio-funtzioak bereizten ditu, eta testuinguruaren eta testu-genero eta testu-motaren arabera, funtzio horietako adierazleen asmo eta esanahi aldeak atzematen ditu.
- Ahozko testu-genero eta testu-mota desberdinen patroik diskurtsiboen erabilerari lotutako esanahi desberdinak ulertzen ditu.
- Ahozko hizkuntzak berezko dituen egitura sintaktikoei lotutako esanahiak eta funtzioak ulertzen ditu erabilerari orokorreko testuinguruetan, baita bere interes eta espezializazio arloko espezifikagoetan ere.
- Ahozko lexikoa atzematen du, arrunta eta espezializatuagoa, bere interesei eta beharrei lotua esparru pertsonalean, publikoan, akademikoan eta profesionalean; ohiko esapideak eta esamoldeak ere atzematen ditu.
- Komunikazio-asmoen araberrako soinu, azentu, erritmo eta intonazio patroik arruntak eta espezifikagoak ere bereizten ditu.

### Ahozko ekoizpena eta elkarreragina

- Xede-hizkuntza eta kulturaren alderdi soziokultural eta soziolinguistiko garrantzitsuenei buruzko ezagutzak egokitasunez aplikatzen ditu ahozko testuak sortzeko.
- Ziurtasuna erakusten du erregistro ezberdinak erabiltzean eta modu aproposan aritzen da egoera anitzetan.
- Hainbat motatako ahozko bakarrizketa zein elkarrizketa luze samarrak sortzeko estrategia egokiak eraginkortasunez eta naturaltasunez erabiltzen ditu.
- Diskurtsoa planifikatzeko komunikazio-asmoa, egoera, solaskideak eta komunikazio-kanala kontuan izaten ditu, eta diskurtsoaren jarraipena eta konponketa egiten du komunikazioa nekerik gabe gauzatu dadin.
- Markatutako helburu komunikatiboak betetzen ditu testuinguru espezifikorako adierazlerik egokienak erabiliz.
- Diskurtsoa modu argi eta koherentean artikulatzen du, testu-genero eta testu-motaren araberrako antolamendu-patroiak, eta kohesiorako baliabideak erabiliz.
- Eraginkortasunez argudiatzen du eta bere ikuspuntua ñabartzen du egitura enfatikoak erabiliz edo iruzkinak eta zehaztasun egoki eta esanguratsuak eginez.
- Egitura sintaktiko arruntak eta konplexuago batzuk ere ondo kontrolatzen ditu, nahiz eta noizbehinka sistematikoa ez den eta atzera eginez zuzen dezakeen hutsegiteren bat egin.
- Bere espezialitateari eta interesiei buruzko eta gai orokorragoei buruzko lexiko zabala du.
- Formulazioa aldatzen du errepikapenak saihesteko eta itzulinguruak malgutasunez erabiltzen ditu esapide zehatzagorik aurkitzen ez duenean.
- Ahoskera eta intonazio argi eta naturalak ditu.
- Argi eta natural mintzatzen da, erritmo aldaketa handirik egin gabe, eta esan nahi duena mugatu beharra duenik ageri ez delarik.
- Behar beste hizkuntza-baliabide aplikatzen ditu eta hainbat egitura konplexu erabiltzen ditu deskribapen argiak eta zehatzak egiteko, ikuspuntuak adierazteko eta argudioak garatzeko; jardunean ez zaio asko antzematen hitz egokien bila dabilenik.



- Interakzioa malgutasunez, eraginkortasunez eta lankidetzaz kudeatzen du, ulertu duela argi utziz, solaskideari iritzia eskatuz, gainerakoak parte hartzera gonbidatuz, eta komunikazioa mantentzen lagunduz.

### **Ebaluaziorako honako irizpide hauek erabiliko dira:**

#### Egokitasuna eta Koherentzia

- Diskurtsoak atazan eskatutakoa betetzen du, baita ariketa burutzeko denbora ere.
- Testua komunikazio-egoerara egokituta dago, erregistroa, gaia, eta hartzailea/solaskidea kontuan izanda.
- Emandako informazioa egokia eta esanguratsua da, eta ondo antolatuta dago, informazioaren kudeaketan ez dago hutsune edo jauzi nabarmenik.
- Diskurtsoak barne-koherentzia gordetzen du eta naturaltasunez garatzen da ideien arteko lotura argi adieraziz; horretarako, logika, denboralitatea eta kausalitatea aplikatzen ditu.
- Interakzioan badaki hitz egiteko txanda modu egokian erabiltzen eta hitzari eusten, batzuetan horretarako dotorezia falta bazaio ere.
- Denbora irabaztearren eta hitz egiteko txandari eustearren, zer esan formulatzen duen bitartean, esaldi eginak erabiltzen ditu.

#### Hitz-jarriotasuna eta Kohesioa

- Jario eta naturaltasun handiz komunikatzen da, diskurtsoaren erritmoa erregularra da, ez du eten luzerik egiten, eta malgutasunez birformulatzen du.
- Era askotako lokailuak eta erreferentzia-mekanismoak eraginkortasunez erabiltzen ditu.

#### Aberastasuna

- Bere lexikoa atazara egokitzeko, hartzailea/solaskidea, testuinguru soziolinguistikoa eta diskurtsoaren funtzioa kontuan ditu.
- Lexiko zabala eta zehatza du; adjetibazioa, aditzondoak, itzulinguruak, konparazioak edo adibideak erabiliz, ñabardurak egin ditzake.
- Formulazioa aldatzen du etengabeko errepikapena saihesteko.

#### Zuzentasuna eta Ahoskera

- Gramatika kontrol-maila ona du eta zuzentasun gramatikal nahiko handia, akats morfologiko eta sintaktiko gutxiko diskurtsoa du, eta egindako akatsak ez dira sistematikoak, ez diete ohiko egiturei eragiten eta ez dute komunikazioa eragozten.
- Ahoskera argia eta naturala du, azentu atzerritarra antzematen bazaio ere.
- Intonazio zuzena du, eta era askotako funtzioak (galdera, harridura, emozioa) bete ditzake.

### **Irakurriaren ulermena**

Hizkuntza hori erabiltzen duten lekuetako kulturen ezaugarriei eta idatzizko komunikazioaren bereizgarrii buruzko ezagutzak eraginkortasunez aplikatzen ditu testua ulertzeko.

- Erregistro eta estilo estandar desberdinak atzematen ditu.
- Testuaren zentzu orokorra, funtsezko informazioa, puntu nagusiak eta xehetasun garrantzitsuenak ulertzen ditu.
- Egileen iritzi eta jarrera inplizitu zein esplizituak ulertzen ditu.

- Testuaren komunikazio-funtzioak bereizten ditu, eta komunikazio-asmu eta esanahi aldeak atzematen ditu.
- Idatzizko testu-genero eta testu-mota desberdinen ohiko patroik diskurtsiboen erabilerrari lotutako esanahi desberdinak ulertzen ditu.
- Idatzizko hizkuntzak berezko dituen egitura sintaktikoei lotutako esanahiak eta funtzioak ulertzen ditu ohiko erabilera testuinguruetan, baita bere interes eta espezializazio arloko espezifikagoetan ere.
- Irakurketa-lexiko zabala du, orokorra baita espezializatuagoa ere bere interes eta beharrei lotua denean esparru pertsonalean, akademikoan edo profesionalean; ohiko esaterak eta esamoldeak ere ulertzen ditu.
- Bere interes edo espezialitateko gaietan hitz eta esapide ezezagunen esanahia testuingurutik ondorioztatzen du.
- Arruntak zein erabilera urriagokoak izan, formatu eta puntuazio konbentzioei eta konbentzio tipografikoei eta ortografikoei lotutako balioak eta esanahiak ezagutzen ditu, baita laburdura eta sinbolo arruntak eta espezifikagoak ere.

## Idatzizko ekoizpena eta elkarreragina

- Testu idatziak sortzeko, xede-hizkuntza eta kulturaren alderdi soziokultural eta soziolinguistiko garrantzitsuenei buruzko ezagutzak egokitasunez aplikatzen ditu.
- Komunikazio-egoerara egokitzeko erregistroan eta estiloan egokitzapenak egiten ditu.
- Testu idatzi luze samarrak, zehatzak eta ondo egituratuak sortzen ditu.
- Puntu nagusiak garatzen ditu, behar den informazioa erabiliz horiek luzatzen ditu, eta hainbat iturritatik jasotako informazio esanguratsua egokitasunez integratzen du.
- Jarritako helburu komunikatiboak betetzen ditu, testuinguru espezifikorako adierazlerik egokienak erabiliz.
- Testua modu argi eta koherentean artikulatzen du, testu-genero eta testu-motaren arabera antolamendu-patroiak eta kohesio-baliabideak egokitasunez erabiltzen ditu.
- Deskribapen eta narrazio argi eta zehatzak garatzen ditu.
- Eraginkortasunez argudiatzen du eta bere ikuspuntuak ñabartzen ditu, egitura enfatikoak, iruzkinak eta zehaztasun egoki eta esanguratsuak eginez.
- Egitura sintaktiko arruntak eta konplexuago batzuk ere ondo kontrolatzen ditu, nahiz eta noizbehinka sistematikoa ez den eta komunikazioan eraginik ez duen hutsegiteren bat egin.
- Bere espezialitateari eta interesei buruzko eta erabilera orokorreko lexiko idatzi zabala du.
- Formulazioa aldatzen du errepikapenak saihesteko, eta itzulinguruak malgutasunez erabiltzen ditu esapide zehatzagorik ez duenean.
- Behar besteko zuzentasunez erabiltzen ditu ortografia-patroiak, arruntak eta espezifikagoak.

## Ebaluaziorako honako irizpide hauek erabiliko dira:

### Egokitasuna eta Koherentzia

- Idatzitakoa proposatutako xedera ondo egokituta dago (narrazio testua, deskriptiboa, iritzizkoa, eskutitz administratiboa), hitz kopurua egokia da.
- Ekoizpena egokituta dago erregistroa, hartzailea eta komunikazio egoera kontuan izanda.
- Informazioa egokia eta esanguratsua da, eta hurrenkera logikoa jarraitzen du, informazioaren kudeaketan ez dago hutsune edo jauzi nabarmenik.
- Testuak barne-koherentzia gordetzen du eta diskurtsuaren hurrenkera naturala jarraitzen du (logika, denbora eta kausalitatea).
- Ideiak ondo lotuta daude, ideia batetik besterako bidea naturaltasunez eginda dago, hutsune barik; ideiak behar bezain ondo garatuta daude, eta modu argian azalduta.

### **Kohesioa eta Testu egituraketa**

- Testua paragrafotan egituratuta dago, paragrafoen hasiera eta amaiera markatzeko baliabide tipografikoak egoki erabilia daude.
- Paragrafoak eta esaldiak ondo lotuta daude; horretarako, diskurtso antolatzaileak, era askotako lokailuak eta erreferentzia-mekanismoak eraginkortasunez erabili ditu; horri esker, ideiak ere ondo lotuta daude eta testua argia da.
- Aditzaren tempusa eta aspektua ondo erabilia daude.
- Puntuazioaren erabilera egokia egiten du.

### **Aberastasuna eta Zehaztasuna: Lexikoa eta Morfosintaktikoa**

- Bere lexikoa eskatutako ariketara egokitzeko, hartzailea/irakurlea, testuinguru soziolinguistikoa eta testuaren funtzioa kontuan ditu.
- Lexiko aberatsa du, eta egitura morfosintaktiko sorta nahiko zabala, adjektiboak, aditzondoak, itzulinguruak, konparazioak edo adibideak erabiliz ñabardura batzuk egin ditzake.
- Lexiko zehatza erabiltzen du, ohikoa ez den elementuren batean zehaztasunik eza ager litekeen arren.
- Formulazioa aldatzen du beharrezkoak ez diren errepikatzeak saihesteko.

### **Zuzentasuna: morfosintaktikoa eta morfologikoa**

- Gramatika kontrol-maila ona du eta zuzentasun gramatikal nahiko handia, akats morfologiko eta sintaktiko gutxi egiten ditu, eta egindakoak ez dira sistematikoak, ez dira oinarritzekoak, eta ez dute irakurketan eragiten; egitura konplexuak erabiltzean edo hain ohikoak ez diren egoeretan egin litzake akats batzuk.
- Idatzitako testuko hitzen ortografia zuzena da, ez du akats sistematikorik egiten, ohikoak ez diren elementuetan edo erabilera espezifikoak dutenetan akatsen batzuk egin litzake.
- Letra larriak eta xeheak ondo bereizita erabiltzen ditu.

### **Bitartekotza**

- Behar bezain sakon ezagutzen ditu hizkuntza erabiltzen den lekuko alderdi soziokultural eta soziolinguistiko garrantzitsuenak.
- Testuinguruaren araberrako egokitzapenak egiten ditu, eta ziurtasuna erakusten du erregistro eta estilo desberdinak erabiltzean.
- Egokitasunez aritzen da egoera ezberdinetan, eta ez du formulazio akats garrantzitsurik egiten.
- Estrategia aproposak eraginkortasunez eta naturaltasunez erabiltzen ditu bitartekaritza egiteko.
- Prozesatu behar dituen testuak helburu, egoera, parte-hartzaile eta komunikazio-kanalera egokitzeko prozedura egokiak eraginkortasunez eta naturaltasunez aplikatzen ditu.
- Mezua argi eta eraginkortasunez transmititu ahal izateko behar duen informazio zehatza lortzen du.
- Transmititu nahi edo behar duen informazioa modu egokian antolatu eta behar bezain ondo zehazten du.
- Nahikotasunez transmititzen du informazioa, baita hiztunen edo egileen tonua eta asmoa ere.
- Partaideen arteko interakzioa erraztu dezake parte-hartze egokien bidez diskurtsoa monitorizatuz, esandakoa errepikatuz edo birformulatuz, iritziak eskatuz, garrantzitsutzat jotzen dituen kontuetan sakontzeko galderak eginez, eta eztabaidaren haria argitzeko beharrezkoa denean informazioa eta argudioak laburtuz.
- Iturrien edo alderdien informazioa eta ideiak alderatu eta kontrastatzen ditu, eta horietako alde garrantzitsuenak egokitasunez laburtzen ditu.

- Gai da beste aukera batzuen abantailak eta desabantailak aztertu ondoren akordiozko irtenbidea proposatzeko.